

Elhuyarrez

XVII eta XVIII. mendeetan Fisika eta Natur Zientziek aldaketa sakon baten ataria ezagutu zuten.

Ordurarte buru lana eta esku lana bi gauza desberdin eta berezi izan ziren. Klase aberatsetako gizonak eta haiek babesten zituzten batzuk bakarrik ziren ikasiak. Hauek ez ziren produkzio gauzez arduratzen. Esku lanak berriz behartsuen eginkizun ziren, jakintzarako bideak itxita zeduzkatenenak.

Garai hartako zientzia munduaren ikuspegi eskolastikoarekin lotuta zegoen eta inolaz ere ez produkzio arazoekin.

Baina ekonomiaren hariak mugitzen zituztenek beren aberastasunak produkzioaren bidez haundi zitezkeela konprenitu zutenean eta harenganako interesa azaldu zitzaientean, haien babesean ziharduten zientzi gizonak ere produkzioaz interesatzen hasi ziren.

Era honetan pentsamoldeak aldatu egin ziren: produkzioan ziharduteak teoriaren premia ikusten hasi ziren eta zientzilariek esku lanetan ari zirenen ezaguera praktikoa beren azterketarako baliotsu izan zitezkeela igertzen.

Hauxe da, hain zuzen, gaurko zientziak antzinakoaren aldean duen ezagugarririk nagusienetako bat, alegia teoria eta praktika elkarren probetxutarako batzea.

Zientzi lanen aurrerapenerako eta hauen ondorioak bizkorrago industriara igaro zitezen, elkarte asko sortu zen European zehar. Horrela XVII.

mendeen oso ugariak ziren elkarte hauk Ingalterran, Alemanian, Frantzia, e.a.

Oraingo zientzian ongi ezagunak ditugun zientzilariak garai hartan horrelako elkarteak sortzen eta aurrera ateratzen saiatuak ditugu: Leibnitz, Reaumur, Bernouilli, D'Alambert, Langrange, Euler eta beste asko.

Mugimendu honek berebiziko indarra hartu zuen eta Euskal Herriraino ere heldu zen. 1746.ean Xabier Maria de Munibe, Peñafloidako Konte jaunak Frantziatik itzultzean, bere etxean, Azkoitian, lagunarteko batzarrek antolatzen zituen Matematika, Fisika eta garai hartako berriei buruz elkarrizketak izateko asmoz.

1765.erako «Sociedad Vascongada de Amigos del País» delako elkar-tearen araudia eginik zuten gizon haiek eta 1776.ean Bergaran jesuiten etxea izandakoan Mintegi bat ireki zuten.

Garai hartako irakaskintza jeneralari zegozkion gaiez gainera, beste gauza batzuen artean, Kimika, Mineralogia eta Metalurgia irakasten ziren. Irakaskintza hobetzeko asmoz Bergarako Mintegiaren buru zirenak atzerrira joaten saiatu ziren irakasle onak ekartzeko. Era honetan, Proust Kimiko famatua ekarri zuten Bergarara 1778.ean bere gaia irakas zezan eta han irakatsi eta aztertu zuen 1780.a arte.

Proust-ek aldegin zuenetik bi urtetara Fausto de Elhuyar etorri zen. Fausto de Elhuyar y Zubice Logroñon jaio zen 1757.ean, bere gurasoak Ipar Euskal Herrikoak baziren ere.

Dirudienez lehenengo ikasketak bere aitapontekoaren ardurapean Arabako Oiongo eskolan eginen zituen.

Beren lehen ikasketak egin ondoren bere anaia Juan Jose eta biak, gurasoek Paris-era bidali zituzten ikastera.

Han Kimika, Fisika, Mineralogia eta Natur Zientziak ikasten ihardun zuten. Fausto Bergaran Mineralogia eta Metalurgia irakasle izateko aukeratu izan zen 1778.ean, baina bere jakinduria osa zezan atzerrira bidali zuten Vascongadak ordainduta.

Alemanian, Austria-Hungarian eta Suezian ikasi ondoren, 1782. urtean etorri zen berriro Bergarara.

Mineralogia eta Metalurgia lanetan ihardun zuen 1783 tik 1785 era arte eta Bergarako ikastetxeari asko lagundu zion hobetzen baina garai hartako gazteek ez zuten gai teknikoak ikasteko zaletasun handirik azaldu eta orduan Elhuyar-ek bere kargua utzi egin zuen.

Bergaran egon ziren denboran ordea, Elhuyar anaiek Euskal Herrian

lortu den zientzi-aurkikuntzarik haundiena lortu zuten: wolfram delakoa ordurarte ezagutzen ez zen kimika elementu berri bat zela aditzera ematea eta wolframita deritzan mineraletik bereztea.

Aurkikuntza honen berri «Análisis químico del Wolfram y examen de un nuevo metal que entra en su composición» izeneko lan batean eman zuten Elhuyar anaiek. Lan hau benetako zientzilana dugu, zorrotza, berria eta sakona.

Ipar Euskal Herrikoen seme batzuek Hego Euskal Herrian horrelako lan eder eta munduan ezaguna egin zutenak zirelako hartu dugu guk Elhuyar anaien izena aldizkari honentzat.